

## **Maiatzak 4etik 14ra bitartean irekiko da Andoaingo Udal Musika Eskolako 2021-2022 ikasturterako izen-ematea**

- **Udal eskolaren musika eskaintza 4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako musika tailerrekin hasten da**
- **Musika-instrumentoen eskaintza zabala da: akordeoia, gitarra, gitarra elektrikoa, baxua, pianoa, organoa, klarinetea, saxofoia, tronpeta, tronboia, tronpa, kantua, biolina, zeharkako flauta edo perkusioa**
- **Behin maila egokia eskuratuta, ikasleek eskolako talde instrumentaletan eta bokaletan parte hartu dezakete**

Dagoeneko martxan ipiniko da Andoaingo Udal Musika eskolako 2021-2022 ikasturterako matrikulazio epea. Musika Eskolak irailean hasiko dira eta Bastero Kulturgunean emango dira klaseak.

Udal eskolaren musika eskaintza 4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako musika tailerrekin hasten da. Bertan, jolasa eta dibertsioaren bidez musikarekiko zaletasuna pizteko lehen aukera dute hurrek: erritmoko-jolasak, dantza-koreografia, ahots-entonazioak, Orff sistema, entzumen-hezkuntza, musika hizkuntzaren oinarria, ipuin musikala, kontzertu didaktikoak, instrumentuen hastapena, e.a. Instrumentuen eskaintza zabala da: akordeoia, gitarra, gitarra elektrikoa, baxua, pianoa, organoa, klarinetea, saxofoia, tronpeta, tronboia, tronpa, kantua, biolina, zeharkako flauta, perkusioa...

Bestalde, nabarmentzen da Musika Eskola ez dela haurrentzat eta gazteentzat bakarrik, ikaslegoaren zati handi bat pertsona helduez osatzen baita. Tresna ugari daude aukeratzeko, taldeetan parte hartzeko aukeraz gain. Gainera, musika hizkuntza helduei zuzenduriko klaseetan ikasteko aukera ere badago.

Maiatzak 4etik 14ra bitartean irekiko da Andoaingo Udal Musika Eskolako izen-ematea, eta modu ezberdinetan gauzatu ahal izango dira:

- Izapideak egin ahalko dira Udalaren web-orriaren bidez, horretarako prestatutako inprimakia betez, online formularioan [https://labur.eus/musika\\_eskola](https://labur.eus/musika_eskola) (Maiatzak 4ean aktibatuko da)
- **Telematikoki:** [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) (sede elektronikoan), Udaleko Atarian 8:00etatik – 14:30etara (hitzordua eskatu behar da) eta Bastero Kulturgunean. Eskaera telematikoki egiteko identifikazio digitala behar da.
- **Aurrez aurre** Bastero Kulturguneko leihatilan egin daiteke astelehenetik ostiralera, 10:30etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 16:30etik 19:00etara.

Argibide gehiagorako, 943 303540 telefonora deitu dezakezue.

## La inscripción para el curso 2021-2022 de la Escuela Municipal de Música de Andoain se abrirá del 4 al 14 de mayo

- La oferta musical de la escuela municipal comienza con talleres dirigidos a niños y niñas de 4 a 6 años
- Amplia oferta de instrumentos musicales: acordeón, guitarra, guitarra eléctrica, bajo, piano, órgano, clarinete, saxofón, trompeta, trombón, trompa, canto, violín, flauta travesera o percusión
- Una vez alcanzado el nivel adecuado, el alumnado puede participar en los grupos instrumentales y vocales de la escuela

Ya está en marcha el plazo de matriculación para el curso 2021-2022 de la Escuela Municipal de Música de Andoain. Las clases de música comenzarán en septiembre y se impartirán en las instalaciones de Bastero Kulturgunea.

La oferta musical de la escuela municipal comienza con talleres de música dirigidos a niños/as de entre 4 y 6 años. En ella, los/as niños/as tienen la primera oportunidad de despertar su afición por la música a través del juego y la diversión: juegos de ritmo, coreografía de danza, entonaciones vocales, sistema Orff, educación auditiva, base del lenguaje musical, cuento musical, conciertos didácticos, iniciación a los instrumentos, etc. La oferta de instrumentos es amplia; acordeón, guitarra, guitarra eléctrica, bajo, piano, órgano, clarinete, saxofón, trompeta, trombón, trompa, canto, violín, flauta travesera, percusión...

Por otra parte, cabe destacar que la Escuela de Música no es sólo para niños/as y jóvenes, sino que una parte importante del alumnado se compone de personas adultas, con un amplio abanico de herramientas para elegir, además de la posibilidad de participar en grupos. Además, también se puede aprender el lenguaje musical en clases dirigidas a adultos.

Entre el 4 y el 14 de mayo se abrirá la inscripción de la Escuela Municipal de Música de Andoain, que se podrán llevar a cabo de maneras diferentes:

- La tramitación se podrá realizar a través de la página web del Ayuntamiento, rellenando el formulario online habilitado para ello, en la dirección [https://labur.eus/musika\\_eskola](https://labur.eus/musika_eskola) (se activará el 4 de mayo)
- **Telemáticamente:** en la página web [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) (sede electrónica), en Ataria del Ayuntamiento y en Bastero Kulturgunea. Para registrar telemáticamente se necesita identificación digital.
- **En persona** en la taquilla de Bastero Kulturgunea de lunes a viernes de 10:30 a 13:00 horas y por la tarde de 16:30 a 19:00 horas.

Para más información, podéis llamar al 943 303540.